



**Ikasmina DoKS:**

Gipuzkoan bizitza osoko ikaskuntzari  
buruzko dokumentuak

**Ikasten duten  
pertsonak eta hauen  
prestakuntza maila**

**55. dokumentua**

**2017ko abendua**

**Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.**  
Gipuzkoa, un territorio que aprende.



**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Ekonomia Sustapeneko,  
Landa Inguruneko eta  
Lurralde Orekako Departamentua

## AURKIBIDEA

1.	<b>Sarrera</b> .....	<b>3</b>
1.1.	Sarrera.....	3
2.	<b>Parte-hartzea ikaskuntzan</b> .....	<b>4</b>
2.1.	Pertsonak eta ikasteko jarduera.....	4
2.2.	Pertsonak eta ikaskuntza arautua .....	6
2.3.	Pertsonak eta ikaskuntza ez arautua .....	8
3.	<b>Motibazioak eta oztopoak ikaskuntzarako</b> .....	<b>10</b>
3.1.	Arrazoiak bizitzan zehar ikasteko .....	10
3.2.	Oztopoak ikaskuntza jardueretan parte hartzeko .....	12
4.	<b>Prestakuntza ibilbidea eta ikasteko itxaropenak</b> .....	<b>14</b>
4.1.	Jarraikotasuna ikasteko jardueretan .....	14
4.2.	Ikasten jarraitzeko itxaropena.....	16

# 1. Sarrera

## 1.1. Sarrera

Gipuzkoaren helburua ikasten duen lurralde bihurtzea da, hori izan dadin jakintzaren gizartearen ardatz. Eta horretarako, bizi osoan zehar ikasteko eredu espezifiko bat garatzetik hasi nahi dugu. Bizi osoan, luze eta zabal, ikaskuntzari arrakastaz ekin eta amaieraraino eramateko motibazioan eta konfiantzan oinarritutako jarrera positiboa duten pertsonen lurraldea izan nahi dugu.

Testuinguru horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuaren iritziz, pertsonak ikastea oinarria da Gipuzkoako gizartearen aurrerabidea, oparotasun ekonomikoa, gizartearen ongizatea eta errealizazio pertsonala lortzeko.

Bizi osoko ikaskuntza horretan sartzen dira pertsonak alor batean edo bestean eguneroko bizitzan egiten dituzten jarduerak, alor pertsonalean eta hiritar, gizarteko kide edo profesional diren aldetik egiten dituztenak, eta jarduera horiek pertsonen jakintzak, gaitasunak eta prestakuntza hobetzen laguntzen dute.

Dokumentu honetan Gipuzkoako pertsona helduen jarduerak jaso ditugu ikaskuntza-jardueretan duten partaidetza kontuan hartuta, betiere, lortutako trebakuntza mailaren ikuspegitik. Pertsona baten ikaskuntza maila, pertsonak lortu duen araututako ikaskuntzako tituluari egiten dio erreferentzia; hau da, titulazio ofiziala lortu izana egiaztatzen du.

Pertsona helduen ikaskuntzako dinamikak hobeto ezagutzea da helburua, eta haien trebakuntza mailak duen garrantzia nabarmentzea; izan ere, bizitza osoan garatu beharreko ikaskuntza-jardueretarako prestatzen ditu horrek.

## 2. Parte-hartzea ikaskuntzan

### 2.1. Pertsonak eta ikasteko jarduera


**Etengabeko ikaskuntza-jardueretan parte hartzea prestakuntza mailarekin batera handitzen da**

Gipuzkoako hamar pertsona heldutatik lauk hartu du parte ikaskuntza-jardueraren batean azken hamabi hilabeteetan (% 40,7). Ehuneko hori ia erdira murrizten da (% 22,5), lortutako prestakuntza maila lehen mailako ikasketetatik haratago ez dagoenean.

Bigarren mailako ikasketak dituzten herritarren artean, azken urteko ikaskuntza-jardueretako parte-hartzea % 38,3ra igotzen da, eta ehuneko hori nabarmen gainditzen du goi mailako ikasketak dituztenen taldeak (% 59,3).

#### 1. grafikoa Ikaskuntzan parte hartzea (azken hamabi hilabeteetan), ikasketa mailaren arabera

Baiezko erantzunen ehunekoa (%), 25 eta 74 urte bitarteko biztanleria




Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.

Espero zitekeen moduan, ikaskuntza-jardueretan parte-hartze handiena azken lau asteetan erregistratutako jokabidearekin lotuta agertzen da.

Horrekin lotuta, Gipuzkoako pertsona helduen % 18,9ak aurreko lau asteetan ikaskuntza-jardueraren bat egin du, % 8,3 eta % 30,6 arteko heinarekin, lehen mailako eta goi mailako ikasketak dituzten pertsonen artean, hurrenez hurren.

**2. grafikoa Ikaskuntza jarraituan parte hartzea (azken lau asteetan), ikasketa mailaren arabera**

Baiezko erantzunen ehunekoa (%), 25 eta 74 urte bitarteko biztanleria



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia, Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

## 2.2. Pertsonak eta ikaskuntza arautua

### **Ikaskuntza arautuko jardueretako parte-hartzea askoz ere handiagoa da goi mailako ikasketak dituztenen artean**


Ikaskuntza formala egituratutako ikaskuntzako jarduerak dira; oro har, hezkuntza arloan garatzen dira eta titulazio ofiziala lortzea dute helburu.

Emaitzen arabera, lortutako ikasketa maila ere ikaskuntza formaleko jardueretan parte hartzeko erabakigarria dela ikus daiteke.

Hain zuzen ere, Gipuzkoako herritar helduen % 9,2ek ikaskuntza formaleko jardueraren bat egin du azken urtean, eta ehuneko hori % 14,7ra arte igo zen da goi mailako ikasketak dituzten herritarren artean. Nabarmendu behar da lehen mailako ikasketak dituztenen biztanleen portzentaia (% 5) modu ezohikoan gerturatu da bigarren mailako ikasketak dituzten biztanleen emaitzetara (% 7,5), desberdintasunak handiagoak direnean egindako gainontzeko alderaketetan bi kolektiboaren artean.

### **3. grafikoa Ikaskuntza arautuko jardueretan parte hartzea, ikasketa mailaren arabera, azken 12 hilabeteetan**

Baiezko erantzunen ehunekoak (%), 25 eta 74 urte bitarteko biztanleria



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.


Azken urtean ikaskuntza arautuko jarduerak egin dituzten herritar helduen banaketa aztertuz gero, kasik erdiak (% 51,4) goi mailako prestakuntza maila dutela ikus dezakegu, eta hamarretik hiru baino zertxobait gehiagok, bigarren mailako ikasketak (% 33,8).

Banaketa horrek adierazten du lortutako prestakuntza maila elementu erabakigarria dela helduek bizitza osoan prestakuntza jasotzen jarraitzeko, batez ere, goi mailako ikasketak dituzten herritarrek ikaskuntza formalean dauden 25 eta 64 urte arteko Gipuzkoako herritar guztien herena (% 33) suposatzen dutela kontuan hartuta.

Bigarren mailako ikasketak dituzten biztanleen partaidetza erlatiboa baxuagoa da helduen biztanlerian duten pisuarekin (% 41,1). Hori dela eta, agerikoa da bigarren mailako ikasketak dituzten herritarren proportzio handiago horrek gutxitu egiten duela lehen mailako ikasketak dituen biztanleriaren pisua (biztanleriaren % 27a).

**4. grafikoa Ikaskuntza arautuko jardueretan parte hartzen duten pertsonen banaketa, ikasketa mailaren arabera**

Parte hartu duen 25 eta 74 urte bitarteko biztanleria



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

## 2.3. Pertsonak eta ikaskuntza ez arautua


**Bigarren mailako ikasketak dituzten herritarrek parte-hartze baxuagoa dute ikaskuntza ez-arautuko jardueretan**

Ikaskuntza ez arautua edozein eremutan garatutako jardueri dagokie (ikastetxea, enpresa, kulturgunea...). Jarduera horiek ikaskuntza-helburu jakin batzuk lortzera bideratuta daude, baina haiekin ez da titulu ofizialik lortuko.

Erantsitako grafikoan ikus daitekeen moduan, jarduera mota horien parte-hartze tasa ere gero eta handiagoa da herritarren prestakuntza maila igo ahala. Beraz, goi mailako ikasketak dituzten herritarren kolektiboak soilik du herritar helduen guztizkoaren batez bestekoak (% 51,8) baino ikaskuntza ez-formaleko parte-hartze tasa altuagoa (% 52,1).

Bigarren mailako ikasketak dituzten herritarren artean, parte-hartze tasa (% 33,7) 25 eta 64 urte arteko herritarren batez bestekoaren (% 33,3) bi puntu azpitik dago, eta lehen mailako ikasketak dituzten kolektiboaren kasuan, ehunekoa askoz ere baxuagoa da (% 18,3).

**5. grafikoa** Ikaskuntza ez arautuko jardueretan parte hartzea, ikasketa mailaren arabera, azken hamabi hilabeteetan



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.




Ikaskuntza ez-formaleko jarduerak egiten dituzten pertsona taldearen osakerak erakusten du lortutako prestakuntza maila ere gertakari erabakigarria dela, baina ikaskuntza arautuko jardueretan ikusitakoa baino neurri txikiagoan.

Kasu honetan, ikaskuntza ez-formaleko jardueretan parte hartu duten herritarren erdiak baino zerbait gutxiago goi mailako ikasketak ditu (% 46,7) eta gainontzeko erdia nahiko modu aldakorrean banatuta dago kontuan hartutako bi prestakuntza mailen artean. Izan ere, ikaskuntza arautua jaso duten hamar pertsonatik lauk (% 39,3) bigarren mailako ikasketak dituzte, lehen mailako ikasketak dituztenetatik oso urrun (% 14), eta erlatiboki gertu aipatutako goi mailako ikasketen kolektiboaren zifretatik.

Horrek agerian uzten du, kasu honetan, goi mailako ikasketak dituzten herritarren taldea handiagoa dela, funtsean, lehen mailako ikasketak dituzten herritarren kontura, ikaskuntza ez arautuko jardueretan azken hauek duten parte-hartzea (% 14) nabarmen baxuagoa da kontuan hartutako herritarren biztanleria banaketari dagokiona baino (% 27).

**6. grafikoa Ikaskuntza ez formaleko jardueretan parte hartzen duten pertsonen banaketa, ikasketak mailaren arabera**

Parte hartu duen 25 eta 74 urte bitarteko biztanleria



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.



# 3. Motibazioak eta oztopoak ikaskuntzarako

## 3.1. Arrazoiak bizitzan zehar ikasteko

**Parte-hartze handiagoa ikasketara jardueretan arrazoi profesionalengatik lehen mailako ikasketak dituztenen artean**


Pertsona helduek ikaskuntza edota prestakuntza jarduerak egiteko dituzten arrazoiak ugariak izan daitezke. Hala ere, dokumentu honi dagokionez, espresuki bi arrazoi jasotzen dira jarduera horien egitea azaltzeko garaian: arrazoi profesionalak eta arrazoi pertsonalak.

Ondoren atxikitako grafikoak frogatzen duen bezala, eta kolektiboen arteko desberdintasunak oso nabariak ez diren arren, ikusi daiteke lehen mailako ikasketara maila duten pertsonen ikaskuntza jarduera gehiago egiten dituztela arrazoi profesionalak mugituta (% 63,6), pertsona helduen batezbestekoaren gainetik (% 60,8).

Bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen emaitzari dagokienez (% 60) gertu dago goi mailako ikasketak dituzten pertsonenarengatik (% 60,8). Hortaz, ikaskuntza jarduerak egiteko garaian arrazoi profesionalak duten pisua antzekoa da bi kolektiboetan.

**7. grafikoa** Ikaskuntza arautua egin zuten pertsonen banaketa, lortutako ikasketa mailaren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleria



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

### 3.2. Oztupoak ikaskuntza jardueretan parte hartzeko

#### Ikaskuntza jarduerak lan ordutegiarekin bateraezinak izatea da oztopo nagusia goi mailako ikasketak dituzten pertsonentzat


Oztupoak edo arrazoiak ugariak izan daitezke azken urtean helduek ikaskuntza jardueretan parte hartu ez izana esplikatzeko garaian. Hala eta guztiz ere, txosten honi dagokionez, honako arrazoi hauek hartzen dira aintzat: “ikaskuntza ez da bateragarria nire lanorduekin”; “nire erantzukizun familiarrek galarazten didate”; “motibazio falta dut”; “behar ez ditudala uste dut, nire ezagutzak nahikoak dira”; “zaharra naiz horretarako, ez dut adinik horretarako”; “garestia da, ezin dut jasan”.

Ondorengo grafikoan, goi mailako ikasketak dituztenen kasuan maiztasun handienarekin erabiltzen den arrazoi ikaskuntza jardueretan parte ez hartzeko da euren lan orduekin ezin bateragarria egitea (% 39,3). Aldi berean, kolektibo hau da ere bai ikaskuntzaren kostua gutxien erabiltzen duena arrazoitzat (% 7,5). Alderdi hauek indartu egiten dira kontuan hartzen bada goi mailako ikasketak dituztenen kolektiboa delako ordainduriko enplegu tasarik altuena duena (% 78,7), lehen mailako ikasketak dituztenen gainetik (% 45). Beraz, teorikoki, egoera lasaiago batean daude ikaskuntzarengatik ordaintzeko.

Beste alde batetik, bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen maiztasun gehiagorekin argudiatzen duten arrazoiak da ezin dituztela ikaskuntza jarduerak erantzukizun familiarrekin bateragarriak egin (% 31,8); eta lehen mailako ikasketak dituztenei dagokionez, oztoporik nagusia motibazio falta da (% 43,6). Azken hau hein batean esplikatu daiteke kolektibo honetan dutelako jubilatuek pisu gehien (% 31,7 dira erretiratuak), bigarren mailako ikasketak dituztenen (% 16,3) eta goi mailakoak dituztenen kasuan baino gehiago (% 11,2), eta beraz egon zitekeen arrazoi profesionala desagertzen da, soilik arrazoi pertsonala azalduz.

**8. grafikoa Ikaskuntza jarduerak ez egiteko arrazoiak, ikaskuntza jarduerarik egin ez zituzten pertsonetan oinarrituta, lortutako ikasketa mailaren arabera**

25 eta 74 urte bitarteko biztanleria



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

# 4. Prestakuntza ibilbidea eta ikasteko itxaropenak

## 4.1. Jarraikortasuna ikasteko jardueretan

### **Ikasten jarraitzeko jarrera handitu egiten da lortutako prestakuntza mailarekin batera**


Espero izatekoa den moduan, herritar helduen prestakuntza mailak ikaskuntza-jardueretako parte-hartze dinamikan ere eragiten du.

Parte-hartze maila areagotu egiten da prestakuntza mailarekin batera, beraz, goi mailako ikasketak dituzten herritarren erdiak (% 53,5) adierazi du urtero (edo ia urtero) parte hartzen duela ikaskuntza-jardueretan (formalak edo/eta ez-formalak), eta aldiz, bigarren mailako ikasketak dituztenen artean ehunekoa % 27,7koa da, eta % 12,4koa, lehen mailako ikasketak dituztenen artean.

Inoiz ez dutela parte hartzen adierazten duten pertsonak kontuan hartuta, arlo horretan ere aldeak oso nabarmenak dira. Beraz, lehen mailako ikasketak dituzten herritarrei dagokien ehunekoa (% 32,6) bost aldiz handiagoa da goi mailako ikasketak dituzten herritarrei dagokiena baino (% 6,2).

9. grafikoa Ikaskuntzan parte hartzearen maiztasuna, ikasketa mailaren arabera

Ikasten duen 25 eta 74 urte bitarteko biztanleria



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

## 4.2. Ikasten jarraitzeko itxaropena

**Ikaskuntza jarduerak egiteko itxaropena handitzen da lortutako ikasketak mailaren arabera.**

Lehenengo ataletan bezala, lortutako ikasketan mailak eragina du ere bai pertsonen epe motzean ikaskuntza jarduerak egiteko duten itxaropenean. Kasu honetan, epe motz bezala hurrengo hamabi hilabeteak ulertzen da.


Zentzu honetan, goi mailako ikasketak dituzten pertsonak dira itxaropen handiena dutenak etorkizunean prestakuntza jarduerak egiteko garaian (% 61,2a kolektibo osotik), biztanleria helduaren batezbestekoaren gainetik (% 43,1). Nolabait, orain arte ikasteko jardueretan jarraikortasuna aztertzean antzeman den joera berresten da hemen, non goi mailako ikasketak dituztenen erdiak (% 53,5) adierazten duen urtero edo ia urtero parte hartzen duela ikaskuntza jardueretan.

Lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen kasuan, soilik % 23,4ak dauka datozen hamabi hilabeteetan ikaskuntza jarduerak egiteko asmoa –mailarik baxuena-, bigarren mailako ikasketak dituztenengatik gairik (% 41,9), batezbestekoarengandik hurbilago.



**10. grafikoa Hurrengo urtean ikaskuntza jarduera egiteko asmoa duten pertsonen banaketa, ikasketa mailaren arabera**

Ikasten duen 25 eta 74 urte bitarteko biztanleria



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.



Titulua:	Ikasten duten pertsonak eta hauen ikaskuntza maila 55. dokumentua, 2017ko abendua
Koordinazioa eta gainbegiratzea:	Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia
Egilea:	IKEI, research & consultancy S.A.
Landa-lana:	Datakey, S.A.